

Globoaren erdigunea: iman handi bat


Informazio bilketa

Lurraren magnetismoaz

Indar magnetikoak edo eremu-lerroak

Imanak zer diren ikusi ondoan hurrei erran beharko zaie lur-globoaren nukleoa edo erdigunea dela iman sorgi handiena. Alabaina, globoaren erdigunea iman handi baten pare da eta nukleoaren inguruan eremu magnetikoa sortzen da. Eremu horretako lerroak ipar-hego ardatz nagusiari hurbil dabilta norabide berari jarraituz. Erran nahi du eremu magnetikoa ardatz horretan dagoela azkarrenik (ikus eskema).

Ondorioz, lurrazalean, eskuetan dauzkagun iman ttipiak ardatz horretan lerrokatzen dira iparra erakutsiz.



Jarduera

■ Haurrak utziko dira informazioaren bilatzen entziklopedietan eta Internet sarean.

■ Zer diren eta nola dabilta indar lerro horiek hein batean baizik ez da sakonduko. Gisa berean, lur-globoaren eremu magnetikoaz ere ez gara luzatuko. Ikasleek indar berezia badagoela ipar-hego ardatz horretan ulertu behar dute haatik.

Idatzizko hatzak

Ikerketen ondotik eta taldeen ekarpena baliatuz, laburpen bat eginen da ahoz eta kaierean idatzizko. Marrazkiak eta eskemak emanen dira laguntzeko.